

Altza

Larraitz Garmendia [fnoa.: 391267]

altzako Historia Mintegiak «Estibaus» boletinaren zortzigarren zenbakia kaleratu du. Martxoan argitaratu eman den alean hiru dira landutako erreportaiak. Javi Castrok Altzan dagoen ondarearen alde jarrera eraginkorra izatea proposatzen du, Debako Irarrazabal baserriaren alde egin den lana eredutzat hartuz. Auzoko Tomasene, Berra, Miles... baserrien etorkizunaz kezkatuta ageri da kontuan izanda hiriak duen hazkunde eta bilakaera.

Bestalde, Kontxi Neirak lerro batzuk idatzi ditu San

**Argitalpen
honek
altzatarren esku
hartzea
eskatzen du**

«Estibaus» boletinaren ale berria kalean



Altzako ondarearen parte garrantzitsua dira bertako baserriak.

Jose Calasanz ikastetxearen 25. urteurrenez.

Aitor Garinek, aldizkariaren aurreko zenbakian Mikel Telletxeak idatzitakoari buruz hausnarketa egin du.

Azkenik, altzatarren esku hartzea eskatzen da argitalpen honetan eta horretarako Historia Mintegiko partaideekin harremanetan jartzeko deia egiten dute.

Bidebieta

Pilar Miroren bi filme Kontadorezen

kontadoresek zita interesgarria proposatzen du zinearekin apirilaren 3an eta 24an, Pilar Miro zinegilearen bi filme eskainiko dira arratsaldeko 16.30etatik 20.30etara. Jose Luis Rebordinosek jarriko ditu zine-forum honetan hitzak eta aukeratutako filmek «Gary Cooper que estás en los cielos» eta «Beltene-gros» dira.

Kontadoresek urte osoan zehar egiten duen zine eskaintzaren barruan daude bi saio hauek. Aurtengo zine ikastaroa Ingmar Bergman zuzendariari eskaini bazaio ere, Pilar Miroren heriotzak bi filme hauek eskaintzera bultzatu ditu antolatzaileak. Sarrera doanekoa izango da.

SUKALDARITZA ETA NUTRIZIO ASTEA

SUKALDARITZA IKASTAROA

Martxoak 30etik Apirilak 4 arte
Goizeko 09.00etatik 12.00ak arte
Matrikula: 5.000 pezeta

HITZALDIAK

Martxoak 30 astelehena eta 31 asteartea
20.00etatik 21.00etara
Gaiak: Sukaldaritza eta Gastronomia / Nutrizioa

HAURRENTZAKO DOHAINEKO SUKALDARITZA IKASTAROA

Apirilak 2 eta 3, Osteguna eta Ostirala
11-14 bitarteko har-gazteentzat
17.00etaik 19.00etara

IZEN EMATEA:

Ikasbide Kultur Elkarte
Isabel II.aren hiribidea, 15 behea
TELEFONOA: 457107
17.30etatik 21.00etara



**IKASBIDE
KULTUR
ELKARTEA**

Isabel II.aren hiribidea,
15 behea
Tfnoa.: 45 71 07
20011 DONOSTIA

NARRIKA taberna

Narrika 16
Tfnoa.: 42 73 27

Odontologia Klinika

Dr. Beobide

Ametzagaña 49
Tfnoa.: 276227

Medikua - Odontologia